

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

OÑATIKO UDALA

*Bidaurreta Dorreko CoWork Gunearen Araudia behin betiko izaeraz onartzea.*

2017ko uztailaren 20an Osoko Bilkurak aho-batez onartu zuen «Bidaurreta Dorreko CoWork Gunearen Araudia» hasiera bateko izaeraz onartzea.

Kontuan izanik, Araudia jendaurrean egon den epean (2017-8-14ko dataz argitara eman zen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, 154 zkia.) ez duela ez alegazio ez iradokizunik jaso, Toki Araubidearen Oinarri-Arauk arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikuluko azkeneko paragrafoak ezarritakoaren arabera, Araudia behin-betikoz onartutzat jotzea erabaki du Udal Plenoak 2017ko irailaren 27ko bileran.

Adierazten da, Araudi honen aurka, Administrazio Auzigaietako Errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazio Auzigaietako Aretoran, bi hileko epean iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Toki Araubidearen Oinarri-Arauk arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoaren eraginetara, aipatu Ordenantzaren testu osoa ematen da argitara.

Oñati, 2017ko urriaren 17a.—Alkatea. (7154)

BIDAURRETA DORREKO COWORK GUNEAREN ARAUDIA

*1. artikulua. Araudiaren helburua.*

Araudi honen helburua Bidaurreta Dorreko CoWork Gunearen (aurrerantzean CoWork gunea) erabilera arautzea da, Oñatiko Udalak garatutako zuzenbide pribatuko jarduera bezala.

*2. artikulua. CoWork gunearen helburua.*

CoWork gunearen helburua Oñatiko ekintzaile, autonomo, profesional eta mikroenpresei lanerako espazio partekatu bat eskaintzea da; lankidetzazko ekonomia ereduan oinarrituta, sinergiak sortzeko, elkarrekin ikasteko, harremanak sustatzeko eta proiektuak eta ezagutzak partekatzeko balioko duena.

*3. artikulua. Zerbitzuaren onuradunak.*

Oñatiko CoWork gunea honako erabiltzaile hauei zuzenduta dago:

1. Oñatin edo Debagoiena eskualdean erroldatutako ekintzaileak (Enpresa proiektuan bi pertsona ekintzaile diren kasuetan nahikoa izango da eskatzailea Oñatin edo Debagoienean erroldatuta egotea).

2. Egoitza soziala eta fiskala Oñatin edo Debagoieneko herriren baten duten autonomo, profesional eta mikroenpresak.

3. Salbuespen kasutan Debagoienekoak ez diren ekintzaile, autonomo, profesional eta mikroenpresak.

AYUNTAMIENTO DE OÑATI

*Aprobación definitiva del «Reglamento del Espacio CoWork de Bidaurreta Dorrea».*

El Pleno Municipal por unanimidad en sesión celebrada el día 20 de julio de 2017 acordó aprobar con carácter inicial el «Reglamento del Espacio CoWork de Bidaurreta Dorrea».

Habida cuenta de que durante el período de exposición pública (fue publicada en BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa de fecha 14-8-2017 n.º 154) del citado Reglamento no ha sido presentada ninguna reclamación ni sugerencia, en virtud de lo establecido en el último párrafo del artículo 49 de la Ley 7/1985, Reguladora de las Bases de Régimen Local, el Pleno Municipal en sesión celebrada el día 27 de septiembre de 2017 acordó aprobar con carácter definitivo el citado Reglamento.

Contra el presente Reglamento, se podrá interponer Recurso Contencioso-Administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de la publicación del presente anuncio.

En virtud y a los efectos de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, se procede a la publicación del texto íntegro de la citada Ordenanza.

Oñati, a 17 de octubre de 2017.—El alcalde. (7154)

REGLAMENTO DEL ESPACIO COWORK DE BIDAURRETA DORREA

*Artículo 1. Objeto del Reglamento.*

Constituye el objeto del presente reglamento regular el uso del espacio CoWork de Bidaurreta Dorrea (en adelante CoWork gunea) como actividad de derecho privado desarrollada por el Ayuntamiento de Oñati.

*Artículo 2. Objetivo del espacio CoWork.*

El objetivo del espacio CoWork es ofrecer a los emprendedores, autónomos, profesionales y microempresas de Oñati un espacio de trabajo compartido; que basándose en un modelo de trabajo colaborativo, sirva para fomentar la creación de sinergias, el aprendizaje conjunto, el fomento de relaciones y compartimiento de proyectos y conocimiento.

*Artículo 3. Beneficiarios del servicio.*

El espacio CoWork está dirigido a:

1. Personas emprendedoras empadronadas en Oñati o en la comarca de Debagoiena (en el caso de proyectos empresariales de dos o más personas será suficiente con que la persona solicitante esté empadronada en Oñati o en Debagoiena).

2. Autónomos, profesionales y microempresas con domicilio social y fiscal en Oñati o en la comarca de Debagoiena.

3. En casos excepcionales, emprendedores, autónomos, profesionales y microempresas de fuera de Debagoiena.

#### 4. artikulua. CoWork gunearen erabilera.

CoWork gunearen bidez enpresa proiektu berriak garatzeko eta enpresen arteko elkarlana sustatzeko behin behineko espazio bat eskaintzen du Oñatiko Udalak. Horretarako, Olakua auzoko Bidaurreta dorrean espazio bat egokitu da, zerbitzu izaerako jarduera ekonomikoak garatzeko.

CoWork guneak honako hau eskaintzen du:

##### 1. Baliabideak:

– Erabiltzaileari esleitzen zaion plazaren erabilera (mahaia, aulkia, gauza pertsonalak gordetzeko armairua,...).

– Espazio komunak erabiltzeko aukera (Bilera gela, topaketa gunea,...).

– Ekipamendua: Arbela, oholza magnetizatu.

##### 2. Zerbitzuak:

– Sare konexioa.

– Argindarra, ura, klimatizazioa.

– Espazio komunaren garbiketa.

3. Erabilera ordutegiak: Hauek izango dira CoWork gunean lanerako espazio bat kontratatzerako orduan eskaintzen diren ordutegi aukerak:

– Ordutegi osoa: Astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 20:00etara.

– Ordutegi partekatua: Astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 14:00etara edo 14:00etatik 20:00etara.

Erabiltzaile bakoitzak CoWork gunea kontratatutako ordutegian bakarrik erabili ahal izango du eta ekintzaileek ordutegi partekatua aukeratu beharko dute derrigorrez, goizeko edo arratsaldeko ordutegia aukeratzuz.

4. Bilera gelaren erabilera: Bilera gela modu eraginkorrean kudeatzeko, erreserba aurrez egingo da. Horretarako, euskarri bat jarriko da erabiltzaileen eskura, espazioa libre dagoen kontsultatu eta erreserba egin ahal izateko. Erabiltzaileek kontratatutako ordutegietatik kanpo bilera gela erabili ahal izango dute, betiere erreserba 3 egun lehenago egiten badute.

Bezeroen, hornitzaileen, kolaboratzaileen edo kanpoko beste edozein pertsonen bisitak jasotzeko bilera gelak erabiliko dira. Lan tokian bertan kanpoko pertsonekin egiten diren bilera, salbuespen kasutan bakarrik onartuko dira eta CoWork guneko gainontzeko erabiltzaileen eta Oñatiko Udalaren Sozioekonomia sailaren baimena beharko dute.

Erabiltzaile bati egokitzen zaion espazioa pertsonala izango da eta ezingo da beste pertsona bati transferitu. Oñatiko Udalak giltza bat emango dio erabiltzaile bakoitzari eta giltza hau ezingo da hirugarren pertsonari utzi Sozioekonomia sailak espresuki baimentzen ez badu.

Enpresa edo proiektu bakoitzeko gehienez ere 2 lanpostu eskatu ahal izango dira. Lan postu horiek eskatzen dituzten pertsonak identifikatu beharko dira eta eskatzailea horietako bat izan beharko da.

CoWork gunearen izaera eta helburuak mantentzeko, erabiltzaileen presentzia fisikoa funtsezkoa da. Hori dela eta, Oñatiko Udaleko Sozioekonomia sailak gutxieneko erabilera presentzia bat betetzeko eskatu ahal izango die erabiltzaileei.

CoWork gunea erabiltzeko eskaerak araudi honen 6. artikuluan ezarritako balioespen-irizpideen arabera aztertu eta ebaluatuko ditu Oñatiko Udaleko Sozioekonomia Batzordeak. Behin aztertuta eta ebaluatuta, Sozioekonomia Batzordearen irizpenarekin batera, Oñatiko Udaleko Osoko Bilkurara helaraziko dira berari buruz erabakia har dezan.

#### Artículo 4. Uso del espacio CoWork.

A través del espacio CoWork el Ayuntamiento de Oñati, ofrece un espacio temporal para fomentar el desarrollo de nuevos proyectos empresariales y la colaboración entre empresas. Para tal fin, se ha habilitado un espacio en la torre Bidaurreta, del barrio Olakua para acoger actividades económicas de servicios.

El espacio Cowork ofrece lo siguiente:

##### 1. Recursos:

– Uso de la plaza que se asigne a la persona usuaria (mesa, silla, taquilla para guardar objetos personales,...).

– Posibilidad de utilizar espacios comunes (Sala de reuniones, zona de encuentro, ...).

– Equipamiento: Pizarra, panel magnetizado.

##### 2. Servicios:

– Conexión de red.

– Luz, agua, climatización.

– Limpieza de espacios comunes.

3. Horario de uso: Las opciones disponibles a la hora de contratar un espacio de trabajo en el CoWork son las siguientes:

– Horario completo: De lunes a viernes, de 8:00 a 20:00.

– Horario compartido: De lunes a viernes, de 8:00 a 14:00 o de 14:00 a 20:00.

Las personas usuarias solo podrán hacer uso del espacio CoWork en el horario contratado y las personas emprendedoras deberán optar obligatoriamente por el horario compartido, optando por el horario de mañana o de tarde.

4. Uso de la sala de reuniones: Para gestionar el uso de la sala de reuniones de forma adecuada, la reserva se realizará con antelación, a través del soporte habilitado para ello. Las personas usuarias podrán utilizar la sala de reuniones fuera del horario contratado, siempre y cuando realicen la reserva con 3 días de antelación.

En el caso de recibir visitas de clientes, proveedores, colaboradores o cualquier otra persona ajena al espacio CoWork se hará uso de la sala de reuniones. Las reuniones en el espacio de trabajo solo se aceptarán en casos excepcionales y tendrán que tener la autorización del resto de personas usuarias del espacio CoWork y del departamento de Socioeconomía del Ayuntamiento de Oñati.

El uso del espacio es personal e intransferible y no podrá ser transferido a otra persona. El Ayuntamiento de Oñati entregará una llave a cada usuario el cual no se podrá ceder a terceras personas sin el consentimiento expreso del departamento de Socioeconomía.

Por cada empresa o proyecto emprendedor se podrán solicitar como máximo dos puestos de trabajo. Se deberá identificar a las personas que solicitan utilizar dichos puestos, entre los que debe encontrarse la persona que realiza la solicitud.

Para mantener la naturaleza y los objetivos del espacio CoWork es fundamental la presencia física de las personas usuarias. Por ello, el departamento de Socioeconomía del Ayuntamiento de Oñati podrá exigir un uso presencial mínimo.

Las solicitudes de autorización para el uso de locales serán analizadas y evaluadas, según los criterios de valoración recogidos en el artículo 6 de este reglamento por la Comisión de Socioeconomía. Una vez analizadas y evaluadas se elevarán al Pleno Municipal del Ayuntamiento de Oñati junto con la propuesta de acuerdo, y el correspondiente dictamen de la Comisión de Socioeconomía, al objeto de su resolución.

#### 5. artikulua. Eskabideak bideratzea.

CoWork gunea erabiltzeko eskabideak idatziz egin behar dira, eredu normalizatuaren arabera. Behin eskaera orria bete-takoan eta sinatutakoan, udaletxeko sarrera erregistroan aurkeztu beharko da, ondorengo ordutegian:

- Astelehenetik ostiralera: 9:00etatik - 14:00ra.
- Larunbatetan: 9:00etatik - 14:00ra.

Eskabide inprimakiaren ale bat eskatzailearen esku geratuko da eta beste alea Sarrera Erregistroan, eta hortik bidaliko da dagokion Sozioekonomia sailera, izapidetu dezaten. Sozioekonomia Batzordeak aurreko hilabetearen jasotako eskaera guztiak aztertuko ditu.

Eskaera orriarekin batera honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

1. Ekintzaileak:
  - a) Eskatzailearen NAN agiriaren kopia.
  - b) Dagokion kasuan, bideragarritasun azterlana edo enpresa plana.
2. Autonomo, profesional eta mikroenpresek:
  - a) Enpresako bazkide edo titularren NAN kopia.
  - b) JEZ/IAEren kopia egiaztatua (Foru Ogasunaren 840. dokumentua).
  - c) Enpresako bazkideen edo titularren eta bertako langileen alta-agiriaren kopiak Gizarte Segurantzari.
  - d) Dagokion kasuan, enpresa plana.

Sozioekonomia Batzordeak aurreko hilabetearen jasotako eskaera guztiak aztertuko ditu.

Eskaera kopurua erabilgarri dauden lanpostuak baino handiagoa baldin bada, lorturiko puntuazioaren arabera esleitu-tako plaza, 6. artikuluko balorazio-irizpideen arabera. Eskabide horiek, Sozioekonomia Batzordearen irizpenarekin batera, Oñatiko Udaleko Osoko Bilkurara helaraziko dira berari buruz erabakia har dezan.

CoWork gunean plazarik lortu ez duten proiektuak lortutako puntuazio ordenaren arabera itxarote-zerrendan geratuko dira. Zerrenda horretan sartzeko data ezartzeko, erabakia hartu den Osoko Bilkura saioaren data hartuko da erreferentzia bezala. Plaza bat libre geratzen den momentuan, itxarote-zerrendan dauden eskaerak beste eskaera berriekin batera lehiatuko dira plaza horren esleipenerako, eta puntuazio-ordenaren arabera banatuko dira. Berdinketa kasuetan, eskaera dataren ordena hartuko da kontuan eta antzintasun handiena duen eskaera lehenetsiko da.

Eskaera itxarote-zerrendan daukaten ekintzaile eta enpresek balorazio berria eskatu ahal izango dute, hasieran aurkeztutako dokumentazio gehigarria gehitu nahi badiote edo aldaketak egin dituztela egiaztatzen badute.

#### 6. artikulua. Proiektuak balioesteko irizpideak.

Proiektuak Sozioekonomia Batzordeak baloratu eta diktaminatuko ditu ondorengo irizpideen arabera:

1. Ekintzaileak:
  - a) Proiektuaren sustatzailea edo sustatzaileetako bat 6 hilabeteko antzintasunaz Oñatin erroldatuta egotea: (6 puntu).

Eta Debagoiena eskualdeko beste herri baten: (3 puntu).

b) Bideragarritasun plana aurkeztea edo enpresa edo erakunde publiko edo pribatu baten ziurtagiri bidez justifikatzea ekintzaileak bideragarritasun plana egiten diharduela: (3 puntu).

#### Artículo 5. Tramitación de las solicitudes.

Las solicitudes para el uso del espacio CoWork se harán por escrito, según modelo normalizado. Una vez rellenada y firmada, se entregará en el Registro General del Ayuntamiento, en el siguiente horario:

- Lunes a viernes: 9:00 - 14:00 horas.
- Sábados: 9:00 - 14:00.

Un ejemplar del impreso de solicitud quedará en poder del solicitante y el otro ejemplar quedará en el propio registro de entrada, que se encargará de dar traslado oportuno al departamento de Socioeconomía para su tramitación. La Comisión de Socioeconomía analizará todas las solicitudes recibidas durante el mes anterior a su celebración.

Junto con la hoja de solicitud se deberá entregar la siguiente documentación:

1. Personas emprendedoras:
  - a) Copia del DNI del solicitante.
  - b) En su caso, estudio de viabilidad o plan de negocio.
2. Autónomos, profesionales y microempresas:
  - a) Copia del DNI de las personas socias o titulares de la empresa.
  - b) Copia del I.A.E. (Documento 840 de la Hacienda Foral).
  - c) Copia de alta en la Seguridad Social de las personas socias o titulares de la empresa y las personas trabajadoras de la misma.
  - d) En su caso, plan de negocio.

La Comisión de Socioeconomía analizará todas las solicitudes recibidas durante el mes anterior a su celebración.

En el caso de que el número de solicitudes sea mayor que el número de puestos de trabajo disponibles, los locales se adjudicarán en función de la puntuación obtenida según los criterios de valoración del Artículo 6. Estas solicitudes se elevarán al Pleno Municipal del Ayuntamiento de Oñati, junto con la propuesta de acuerdo y el correspondiente dictamen de la Comisión de Socioeconomía, al objeto de su resolución.

Aquellos proyectos que no hayan logrado obtener plaza en el espacio CoWork se incorporarán a una lista de espera en base al orden de puntuación obtenida. Para la fecha de inclusión en dicha lista se tomará como referencia la fecha del Pleno Municipal en la que se adopte el acuerdo. Cuando una plaza quede vacante, las solicitudes en lista de espera concurrirán junto con las nuevas solicitudes que puedan existir, a la adjudicación de los mismos, resolviéndose su asignación en base al orden de puntuación.

Aquellas personas emprendedoras y empresas que cuya solicitud se encuentre en lista de espera, podrán solicitar una nueva valoración en caso de justificar cambios sustanciales en su proyecto inicial.

#### Artículo 6. Criterios de Valoración de los Proyectos.

Los proyectos serán valorados y dictaminados por la Comisión Socioeconomía en base a los siguientes criterios:

1. Personas emprendedoras:
  - a) Que las personas promotoras del proyecto estén empadronadas en Oñati con una antigüedad de al menos 6 meses: (6 puntos).

Y en otro municipio de la comarca de Debagoiena: (3 puntos).

b) Presentar el plan de viabilidad o un justificante que certifique que la persona emprendedora está desarrollando el plan de viabilidad a través una empresa o entidad pública o privada: (3 puntos).

c) Enpresa jarduerak orokorrean Oñatirentzat eta Cowork gunearentzat izan dezakeen interesa maila: (gehienez ere 3 puntu).

2. Autonomo, profesional eta mikroenpresak:

a) Egoitza soziala eta fiskala Oñatin izatea: (6 puntu).

Eta Debagoieneko beste herri baten izatea: (3 puntu).

b) Enpresa plana aurkeztea: (3 puntu).

c) Enpresa jarduerak orokorrean Oñatirentzat eta Cowork gunearentzat izan dezakeen interesa: (gehienez ere 3 puntu).

**7. artikulua. Zerbitzu-ematea onuradunari jakinaraztea eta kontratua sinatzea.**

Oñatiko Udaleko Osoko Bilkurak CoWork gunea erabiltzeko baimena ematea onartzen duenean, erabakia onuradunari jakinaraziko zaio.

**8. artikulua. Zerbitzu-ematearen iraupena.**

CoWork gunearen erabilera aldi baterako izango da eta iraupena ezberdina izango da erabiltzaile motaren arabera:

1. Ekintzaileak: Bideragarritasun plana egiten edo enpresa martxan jartzeko pausoak ematen ari diren bitartean erabili ahal izango dute gunea ekintzaileek. Gehienez ere urte betez erabili izango dute eta ezin izango da luzatu. Enpresa eratzen den momentutik aurrera hurrengo puntuan zehazten diren iraupen baldintzak aplikatuko zaizkio ekintzaileari eta espazioa erabiltzen jarraitzeko lehentasuna izango du beste eskaeren aurretik.

2. Autonomo, profesional eta mikroenpresak: Hasierako kontratuak 2 urteko iraupena izango du eta luzatzeko aukera eskainiko da. Horretarako onuradunak aurrez egin beharko du luzapen eskaera eta Oñatiko Udaleko Osoko Bilkurak eskaera onartu beharko du.

Luzapen kontratuek urte bateko iraupena izango dute, baina luzapen eskaerak plazak libre dauden bitartean bakarrik onartuko ahal izango dira. CoWork guneko plazak beteta dauden kasuetan, eskatzaile berrien eta itxaron zerrendan dauden eskaerak lehenetsiko dira.

Egoera hauek ematen diren momentuan kontratua amaitzen zaion erabiltzaile bat baino gehiago egonez gero, CoWork gunea uztera behartuta zein erabiltzaile egongo litzatekeen zehazteko, bertan daramaten denbora hartuko da kontuan. Horrela, antzinasun handiena duen erabiltzaileak bere plaza utzi beharko du.

Edozein modutan, kasu hauek banaka-banaka aztertuko ditu Sozioekonomia batzordeak, eta beste arlo batzuk ere hartuko dira kontuan (ekintzaile berriaren beharrak, garatu behar duen jarduera,...).

3. Kontratuaren indarraldia bukatu baino lehen espazioa erabiltzeari utzi nahi dioten erabiltzaileek eskaera idatziz egin beharko dute, eskaera eredu normalizatuaren arabera eta plaza udalaren esku utziko duten eguna zehaztuz. Kontratuaren mugaeguna baino lehen CoWork gunea uzteak ez du berekin inolako zigorrrik ekarriko.

4. CoWork guneko erabiltzaile izateari utzi eta gero gutxienez 2 urte igaro beharko dira berriz gunea erabiltzeko eskaera onartu ahal izateko.

**9. artikulua. Zerbitzuaren onuradunen betebeharrak.**

Udala eta erabiltzailearen arteko alokairu kontratu bat sinatuko da, bertan xehetasun guztiak zehaztuko direlarik. Erabiltzaileak sinaturiko alokairu kontratuaren klausulak betetzeko konpromisoa hartuko du.

Erabiltzaileak behartuta daude CoWork gunearen udaleko arduradunak metodologia eta prozedurei buruz ezarritako arau edo ildo nagusiak betetzera, baita portaerari eta instalazioen erabilera eta zaintzari buruz ezarritakoak betetzera ere.

c) Grado de interés que la actividad empresarial pueda tener para Oñati y para el espacio CoWork en general: (máximo 3 puntos).

2. Autónomos, profesionales y microempresas:

a) Tener el domicilio social y fiscal en Oñati: (6 puntos).

Y en otro municipio de Debagoiena: (3 puntos).

b) Presentar el plan de negocio: (3 puntos).

c) Grado de interés que la actividad empresarial pueda tener para Oñati y para el espacio CoWork en general: (hasta un máximo de 3 puntos).

**Artículo 7. Notificación de la Prestación del Servicio al Beneficiario.**

Una vez aprobada la concesión de autorización para el uso del espacio CoWork por el Pleno Municipal del Ayuntamiento de Oñati, se notificará la misma a la persona beneficiaria.

**Artículo 8. Duración de la Prestación del Servicio.**

El uso del espacio CoWork será temporal y variará según el tipo de usuario:

1. Personas emprendedoras: Podrán utilizar el espacio mientras estén realizando el plan de viabilidad o dando pasos para poner en marcha la empresa. Podrán utilizarlo como máximo hasta cumplir un año y no podrá ser prorrogado. En el momento en que se constituya la empresa se aplicarán las condiciones que se especifican en el punto siguiente y tendrán prioridad para seguir utilizando el espacio frente al resto de solicitudes.

2. Autónomos, profesionales y microempresas: El contrato inicial tendrá una duración de 2 años con posibilidad de prórroga. Para ello se deberá solicitarla con antelación y tendrá que ser aceptada por el Pleno Municipal del Ayuntamiento de Oñati.

Las prórrogas de contratos tendrán una duración de un año, no obstante, las solicitudes solo se podrán aceptar mientras existan plazas libres. Cuando las plazas del espacio CoWork se encuentren ocupadas, tendrán prioridad las solicitudes de nuevos solicitantes y las que se encuentren en lista de espera.

Cuando se den este tipo de situaciones y haya más de un usuario con vencimiento de contrato en ese momento, para determinar que usuario estaría obligado a dejar su plaza, se tendrá en cuenta el tiempo que estos han permanecido en el espacio CoWork. De tal forma que la persona usuaria con mayor antigüedad tendrá que dejar su plaza libre.

No obstante, estos casos se analizarán uno por uno en la comisión de Socioeconomía, donde se valorarán también otros aspectos (las necesidades del promotor entrante, la actividad que vaya a ejercer,...).

3. Los usuarios que quieran dejar de utilizar el espacio antes de finalizar el periodo de vigencia del contrato tendrán que notificarlo por escrito, según el modelo de solicitud normalizado y detallando la fecha en la cual la plaza quedará en manos del Ayuntamiento. El cese anticipado en el uso del espacio CoWork no conllevará penalización alguna.

4. Después de dejar de ser usuario del espacio CoWork tendrán que transcurrir al menos 2 años para que se pueda volver a aceptar una nueva solicitud.

**Artículo 9. Obligaciones Generales de las personas beneficiarias del Servicio.**

Se firmará un contrato de alquiler entre el Ayuntamiento de Oñati y la persona usuaria en el que se especificarán todas las condiciones. La persona usuaria adquirirá el compromiso de cumplir con todas las cláusulas del contrato.

Las personas usuarias deberán seguir las directrices marcadas por la persona responsable del espacio CoWork en cuanto a metodología y procedimientos y en relación al uso y cuidado de las instalaciones del mismo.

Erabiltzaileek dagozkien zergak, tasak eta prezioak ordaindu behar dizkiete herri-erakundeei.

Oñatiko Udalak noiznahi eska diezazkieke erabiltzaileei legezko betebeharrak betetzen dituztela frogatzeko agiriak.

#### 10. artikulua. Onuradunen betebeharrak bereziak.

CoWork gunearen erabiltzeko onuradun diren pertsona fisikoek edo juridikoek indarrean dauden alokairu kuotak ordaindu beharko dizkiote Oñatiko Udalari.

Erabiltzaileek baimendutako erabileraren arabera erabili beharko dute utzitako lan espazioa eta honi dagozkion elementu eta zerbitzu komunak. CoWork gunea zerbitzu izaerako jarduerak garatzeko pentsatua dago; esate baterako jarduera administratiboak, komertzialak, informatikoak edota antzekoak garatzeko. Beraz, espazio hau ezin izango da erabili adibidez fabrikazio, muntaia edo biltegi jardueretarako, ezta produktuen esposizio edo salmenta puntu bezala,

Aldi berean, ez dira onartuko zarata edo gainontzeko erabiltzaileengan enbarazua sor dezaketen elementuak, ezta ere bertako instalazioetan eta ekipamenduetan kalteak sor ditzaketen jarduerak.

Espazioaren mantenua eta garbiketari dagokionez, erabiltzaileek egoera onean mantendu beharko dituzte instalazioak, ekipamendua eta altzariak eta erabilera ez egoki baten ondorioz sortzen diren kalteak bere gain hartu beharko dituzte. Garbiketari dagokionez, erabiltzaile bakoitza norberaren lanpostua garbi mantentzeaz arduratuko da eta eguneko lan jarduna amaitzen denean mahaia libre utzi beharko du, paper eta elementu pertsonal guztiak kenduta. Lanpostuan ezin izango da jan, eta kafea edo tea hartzeko atseden edo topaketa gunea erabiliko da. Gune hau erabiltzen den bakoitzean garbi eta ordenan utzi beharko da gutzia.

Oñatiko Udalak espazioaren erabilera, ordutegiak eta gainontzeko erabiltzaileen lana errespetatzeko eskaera egiten du eta erabiltzailearen batek era ez egokian jarduten duela ulertzen badute gainontzeko erabiltzaileek CoWork gunearen udaleko arduradunak informatzea.

Segurtasunari dagokionez, erabiltzaileen arduraren izango da norberaren objektu pertsonalak zaintzea eta sarrera-irteerak egiten direnean ateak itxita uztea. Oñatiko Udala ez da erantzule egingo CoWork gunean gertatu litezkeen objektu pertsonalen apurtze, desagertze edo antzeko gertaeren gainean.

#### 11. artikulua. CoWork gunearen erabilera eskubidea galtzea.

CoWork gunearen erabilera eskubidea galtzeko arrazoia izango da araudi honetan ezarritako betebeharren bat ez betezea.

##### Azken xedapena.

Ordenantza edo araudi hau indarrean sartuko da behin betiko testua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta Toki Erregimeneko Oinarrien Legeko 65.2 artikulua xedatzen duen epea igaro ondoren, eta indarrean jarraituko du Udalaren udalbatzarrak aldatu edo derogatzea erabaki arte.

Las personas promotoras deberán abonar a las instituciones públicas los impuestos, tasas y precios a los que estén obligados.

El Ayuntamiento de Oñati podrá solicitar en cualquier momento a las personas usuarias la documentación necesaria para acreditar que cumplen con sus obligaciones legales.

#### Artículo 10. Obligaciones Especiales de los Beneficiarios.

Las personas físicas o jurídicas beneficiarias del uso del espacio CoWork deberán abonar al Ayuntamiento de Oñati las cuotas de alquiler vigentes.

Las personas usuarias deberán utilizar el espacio y los elementos y servicios comunes inherentes al mismo, de acuerdo al uso permitido. El espacio CoWork está pensado para desarrollar actividades de servicios; actividades administrativas, comerciales informáticas o similares. Por lo tanto, este espacio no podrá ser utilizado por ejemplo para actividades de fabricación, montaje o almacenaje, ni tampoco para la exposición de productos o como punto de venta,

De la misma forma, no se aceptará la utilización de cualquier elemento que genere ruido o molestias al resto de personas usuarias, ni tampoco actividades que puedan deteriorar las instalaciones y equipamiento del centro.

En cuanto al mantenimiento y limpieza del espacio, las personas usuarias deberán mantener en buen estado de conservación las instalaciones, equipamiento y mobiliario y se harán cargo de los desperfectos que un mal uso de éstas pueda ocasionar. En cuanto a la limpieza, cada persona usuaria se responsabilizará en mantener limpio su puesto de trabajo y dejará su mesa libre de papeles y otros objetos tras finalizar la jornada de trabajo. Queda prohibido comer en el puesto de trabajo y se utilizará la zona de descanso o encuentro para tomar café o té, etc. Cuando se utilice este espacio se dejará todo limpio y recogido.

El Ayuntamiento de Oñati solicita que se respete el uso del espacio, los horarios y el trabajo del resto de personas usuarias y se pide que si alguna persona no usa el espacio de forma adecuada, informen de este hecho a la persona responsable del espacio CoWork del ayuntamiento.

En cuanto a la seguridad, será responsabilidad de las personas usuarias cuidar los objetos personales y dejar las puertas cerradas cuando se realicen las entradas y salidas. El Ayuntamiento de Oñati no se responsabilizará de los daños, desapariciones o hechos similares que puedan producirse con los objetos personales de las personas usuarias.

#### Artículo 11. Pérdida del derecho de uso exclusivo de local.

Será causa de pérdida del derecho de uso exclusivo del local el incumplimiento de cualquiera de las obligaciones establecidas en el presente reglamento.

##### Disposición final.

La presente ordenanza entrará en vigor una vez publicado su texto íntegro en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y una vez transcurrido el plazo previsto en el art. 65.2 de la Ley de Bases de Régimen Local, permaneciendo en vigor hasta su modificación o derogación expresa que deberá acordarse por el pleno del Ayuntamiento.